

Zergak eta tributuek berrikusteko akordioa adostu dute EAJ-PNVk eta PSE-EEK progresibitatea hobetzeko eta Euskadiko ekonomia- eta gizarte-sarea indartzeko

Akordioa hitzartu dute EAJ-PNVk eta PSE-EEK zergak eta tributuek berrikusteko, alderdi biek 2024ko ekitaldian gai honen inguruan jarrera komun bat aurkezteko hartu zuten konpromisoaren ildotik eta elkarren jarrera ideologiko legitimoak ulertzeko eta bateratzeko borondateari lehentasuna eman dion negoziazioaren bidez.

Bat gatoz oraindik indarrean dagoen zerga-esparruak funtzionatu egin duela, kalitatezko zerbitzu publikoak finantzatzeko eta ekonomia produktiboari laguntzeko behar adina baliabide bermatuz, eta, are gehiago, balantze positiboa ahalbidetu duelarik pandemiak edo Ukrainaren inbasioak eragin zituzten krisi-egoeretan.

Hala ere, ulertzen dugu oraingo honetan adostu ditugun neurri berriek aukera ematen dutela zerga-progresibitaterako bidean aurrera egiteko, errenten banaketa hobetzeko, betetzeke geratzen diren erronkei erantzuteko eta erakundeei baliabide nahikoak emateko, zerbitzu publikoak indartzen eta hobetzen jarrai dezaten.

Adostu ditugun neurri horiek nabarmen lagunduko dute Euskadiko ekonomia- eta gizarte-sarearen berrikuntza eta lehiakortasuna sustatzeko helburua lortzen, erronka demografikoei eta zaintza-politikei berme osoz aurre egiteko, eta beste erronka batzuei aurre egiteko, hala nola enplegu duina bultzatzea, gazteen emantzipazioa edo egoera ahulenean dauden kolektiboak babestea.

Aurrera egingo dugu trantsizio berdea, deskarbonizazioa, energia-eraginkortasuna eta energia berriztagarriak bultzatuko dituen fiskalitatean; alokatzeko etxeen kopurua handitzen laguntzeko, etxebizitza-eskubidea bermatzeko, arreta nagusia gazteengan jarritz. Eta benetako berdintasun eraginkorra lortzeko neurriak eskaini ditugun, kontziliazioa bermatuz eta lan-merkatuan sartzeko erraztasunak emanez.

Akordio hau gauzatu egin beharko da eta arau-proiektu bihurtu. Proiektu hori, hasiera batean, Diputatuen Kontseiluek onartu beharko dute eta, ondoren, hiru Lurraldeetako batzar nagusietan izapidetu, eztabaidatu eta onetsi beharko da. EAJ-PNVk eta PSE-EEK, hiru Lurralde Historikoetako erakundeetan dugun erantzukizun instituzionala oinarri harturik, ulertu egiten dugu gainerako alderdi politikoei eskua luzatu behar zaiela, ahalik eta akordiorik zabalenak lortzeko, foru- eta zerga-arau berriak onartu ahal izango direla bermatzeaz gain, justizia sozialaren mesedetan eta herritar guztien mesedetan lortuko diren helburuak partekatzea ekarriko dutelakoan.